



Bilbon, 2016ko

**MAR 14**

(e)(a)n

En Bilbao a

**14 MAR**

de 2016

## BATU DIRA

Alde batetik, RICARDO BARKALA ZUMELZU jauna, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren (hemendik aurrera, BBUP) izenean eta ordezkarietan, Erakunde Zuzendaritza Batzordeak 2016ko urtarrilaren 26an emandako ahalordea gauzatu, eta

Beste alde batetik, Imanol PRADALES GIL jauna, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren (hemendik aurrera, BFA/ELGSS) Foru Diputatu, 2016ko martxoaren 1eko Foru Erabakiaren bitartez emandako gaituntza gauzatu.

Alde biek onartu dute eskumen eta gaitasun nahikoak dituztela, hurrenez hurren, ondoko LANKIDETZA HITZARMENA gauzatzeko.

## ADIERAZI DUTE

- I. Estatutuz, BBUPek Bizkaiko Lurralde Historikoko 80 udalerritako lehen mailako sareko hornikuntza eta saneamendu zerbitzuen ezarpenerako eta ustiapenerako eskumena dauka, eta, zehazki, Galindoko (Sestao) Hondakin Uren Araztegiaren (HUA) instalazioak ustiitzen ditu. Hain zuzen ere, instalazio horrek Bilboko metropolialdeko milioi bat biztanle ingururi ematen die zerbitzu.
- II. Euskal Autonomia Estatutuko 10.34 artikuluan, Autonomia Erkidegoko Instituzio Komunen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 2/83 Legeko 8. puntuko 7 a) artikuluan eta aipatutako Legearen garapenean emandako martxoaren 5eko 17/85 Foru Dekretuan

## REUNIDOS

De una parte, D. RICARDO BARKALA ZUMELZU, en nombre y representación del Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, (en adelante CABB), que actúa en virtud de poder otorgado por el CD de dicha Entidad, de fecha 26 de Enero de 2016, y

De la otra parte, D. Imanol PRADALES GIL, Diputado Foral del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial de la Excm. Diputación Foral de Bizkaia (en adelante DDEyT/DFB), en virtud de habilitación dada por Acuerdo Foral de 1 de marzo de 2016

Ambas partes se reconocen competencia y capacidad bastante, respectivamente, para la formalización del presente CONVENIO DE COLABORACIÓN.

## MANIFIESTAN

- I. El CABB tiene estatutariamente la competencia del establecimiento y explotación de los Servicios de Abastecimiento y Saneamiento en Red Primaria de 80 municipios del Territorio Histórico de Bizkaia y en particular viene explotando las instalaciones de la Estación de Depuración de Aguas Residuales (EDAR) de Galindo en Sestao, instalación que da servicio a una población cercana al millón de habitantes del Área Metropolitana de Bilbao.
- II. Que en virtud de lo dispuesto en el artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, artículo 7 a) punto 8 de la Ley 2/83, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos y en el Decreto Foral de 17/85, de 5 de marzo,



ezarritakoaren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Organoek errepide eta bideen planifikazio, proiektu, eraikuntza, kontserbazio, aldaketa, finantziario, erabilera eta ustiapenerako eskumen eskusiboa dute, eta, beste zenbait helbururen artean, material berriekin erlazionatutako teknologien ikerketa edota garapena sustatzea du xede, herri lanen esparruan erabiltzeko eta, zehatzago esanda, bere eskumenpean dagoen errepide sarean aplikatzeko.

III. BFA/ELGSSk teknologia berrien garapenerako dituen oinarritzko helburuen artean, eraikuntzarako material berrien ikerketa eta analisisa dago, bai eta aurrerapen edo berrikuntza teknologikoen ondoriozko lan-unitate berrien doikuntza ere. Material eta unitate horiek errepideetan erabiliko lirateke, garapena sustatuz eta, bidezkoa balitz, beraien aplikazioa proposatuz, horretarako beharrezkoak edo egokiak diren baldintzen arabera.

IV. BBUPEk berrerabileraren arloan finkatuta dituen helburuen artean, alde batetik, araztutako hiri hondakin uren berrerabilerara bera aipatu behar da (abendua 7ko 1620/2007 EDn finkatutako irizpideekin bat etorriz), eta, bestetik, prozesu horietatik eratorritako azpi produktuak erabiltzeko aukera aztertu behar da, zenbait esparrutan aplikatu ahal izateko: nekazaritza arloko zein esparru industrialeko balorizazioan (zementu-fabrikak eta abar), bai eta eraikuntzan erabiltzeko material gisa ere, modu horretan, hein handi batean, uraren ziklo integrala itxiz.

V. BFA/ELGSS errepideen esparruan industria eta eraikuntza jarduerako hondakin materialak (altzairutegiko zepa beltzak, eraikuntzako eta eraispentako hondakinak eta bestelakoak, kasu) aztertu, baloratu eta berrerabiltzeko ekintzak gauzatzen ari da.

dictado en desarrollo de la citada Ley, los Órganos Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, tienen la competencia exclusiva en la planificación, proyecto, construcción, conservación, modificación, financiación, uso y explotación de carreteras y caminos, y entre otros objetivos, tiene a su cargo la misión de promover la investigación y/o desarrollo de tecnologías relacionadas con nuevos materiales para su posible utilización en el campo de las Obras Públicas, y en particular, en la Red de Carreteras de la cual es competente.

III. Que entre los objetivos básicos que tiene asignados el DDEyT/DFB en materia de desarrollo de nuevas tecnologías cabe significar el estudio y análisis de nuevos materiales de construcción y la puesta a punto de nuevas unidades de obra que respondan a avances o innovaciones tecnológicas para su empleo en carreteras impulsando su desarrollo y proponiendo su aplicación en su caso, determinando las condiciones que resulten necesarias o más convenientes para ello.

IV. Que entre los objetivos medioambientales establecidos por el CABB en materia de reutilización, hay que destacar por un lado la propia reutilización de las aguas residuales urbanas depuradas, de acuerdo a los criterios establecidos en el R.D. 1620/2007 de 7 de Diciembre, y por otro, explorar la posibilidad de utilizar subproductos procedentes de dichos procesos para su aplicación en ámbitos diversos como pueden ser la valorización agrícola, industrial (cementeras, etc.), así como también como material para uso en la construcción, cerrando así en gran medida el ciclo integral del agua.

V. Que el DDEyT/DFB viene desarrollando actividades para el estudio, valoración y reutilización en el campo de las carreteras, de materiales residuales de la actividad industrial y constructiva, como las escorias negras de acería, los residuos de la construcción y demolición y otros.



- VI. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, I. tituluko 4. artikuluan, herri-administrazioetako harremanen printzipioak jasotzen ditu. Horren arabera, herri-administrazioek, euren eremuetan, gainerako administrazioek euren jarduna modu eraginkorrean betetzeko beharrezkoak liratekeen laguntza aktiboak eta lankidetzak eskaini behar dituzte.
- VII. Aurreko guztia kontuan hartuta, 2010eko urriaren 20an, "UR PARTZUERGOAREN ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN HERRI LAN ETA GARRAIO SAILAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA" sinatu zen, BBUPen eta BFA/HLGSren artean sistema bat atontzeko ikerketa aplikatuaren esparruan, hondakin uren tratamendu prozesutik datozen azpiproduktuetatik Herri Lanen eremuan eraikuntzako materialak nola erabili daitezkeen zehazteko.
- VIII. 2013ko martxoaren 11n egindako proben emaitza egokiak ikusita, "UR PARTZUERGOAREN ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN HERRI LAN ETA GARRAIO SAILAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA- 2. FASEA" sinatu zen, Sailak kudeatzen duen errepide sarearen hainbat zatitan, Galindoko HUAN egindako hondakin uren lohien errausketa prozesutik sortutako errausarekin egindako aglomeratu asfaltikoa erabiltzeko probak egiteko. Horietan, hain zuzen ere, fabrikatzeko eta obran jartzeko baldintzak egiaztatu ahal izango dira, bai eta zirkulazioa igarotzean egiturak duen jokabidea ere; izan ere, azken helburua da errausa Bizkaiko errepideen eraikuntzan erabili daitekeen material gisa baliozkotzea.
- VI. La ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en su título I, artículo 4, recoge los principios de las relaciones entre administraciones públicas por lo que deben prestar, en el ámbito propio, la cooperación y asistencia activas que las otras administraciones pudieran recabar para el eficaz ejercicio de sus competencias.
- VII. Que en aplicación de todo lo anterior con fecha 20 de octubre de 2010 se procedió a la firma de un "CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL CONSORCIO DE AGUAS Y EL DEPARTAMENTO DE OBRAS PUBLICAS Y TRANSPORTES DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA" con objeto de instrumentar un sistema de colaboración entre el CABB y el DOPy T/DFB en materia de investigación aplicada, sobre los posibles usos como materiales de construcción en el campo de las Obras Públicas, de subproductos procedentes del proceso de tratamiento de aguas residuales.
- VIII. Que a la vista de los resultados satisfactorios de las pruebas realizadas, con fecha 11 de marzo de 2013 se procedió a la firma de un segundo "CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL CONSORCIO DE AGUAS Y EL DEPARTAMENTO DE OBRAS PUBLICAS Y TRANSPORTES DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA-FASE 2", que tuvo por objeto la realización de unas pruebas orientadas a la utilización de aglomerado asfáltico elaborado con ceniza, resultante del proceso de incineración de lodos de aguas residuales llevado a cabo en la EDAR de Galindo, en diversos tramos de la red de carreteras gestionadas por dicho Departamento, en los que poder comprobar las condiciones de fabricación y puesta en obra, así como su comportamiento estructural al paso del tráfico, con el objetivo final de la validación

IX. Probak zirkulazio astuneko T1 errepide zatian egin ziren, bi aldaera hauek erabilita:

- BBTM A motako errautsekin egindako nahasketa bituminosoak aplikatzea.
- AC hormigoi asfaltiko motako errautsekin egindako nahasketa bituminosoak aplikatzea.

Horietako material bakoitzak osagai bereko erreferentziak beste bat zuen, errauts-  
fillerra beste komertzial batez ordeztuta.

X. CIESM-INTEVIA enpresak materialen portaeraren jarraipenerako programa diseinatu eta gauzatu zuen, eta, amaierako txostenean adierazten denez, errautsez egindako nahasketek portaera egokia izan dutela egiaztatu da, filler arruntarekin fabrikatutakoen antzera. Ikusitako ezberdintasunak fabrikazioaren heterogeneotasunari eta obran jarritako kopuru txikiei dagozkie, errautsaren erabilerari baino.

XI. Aglomeratua fabrikatzeko material gisa errautsaren erabilera onartu aurretiko behin betiko pauso gisa, BFA/ELGSSko teknikariek beharrezkoa ikusten dute probak egiteko bi zatiak baino garrantzi handiagoko lan pilotua egitea, eskala errealean egingo den lanaren abantailak eta desabantailak behin betiko balioesteko.

XII. Emaitzak aztertu ondoren, errautsa material gisa erabiltzeko zehaztapen teknikoak definituko lirateke, bai BFA/ELGSSren erabilerari buruzko baldintza-orrietan sartzeko, bai Euskal Autonomia Erkidegoko zolen gaineko araudiaren eranskinean sartzeko, eta, era berean, emaitzak egokitzen jotzen diren bideetatik hedatuko lirateke.

de la ceniza como un material que se pueda emplear en la construcción de carreteras en Bizkaia.

IX. Que las pruebas se realizaron en un tramo de carretera con tráfico pesado T1 utilizando dos variantes:

- Aplicación de mezclas bituminosas con ceniza del tipo BBTM A
- Aplicación de mezclas bituminosas con ceniza del tipo hormigón asfáltico AC

Cada uno de estos materiales tuvo otro de referencia con los mismos componentes sustituyendo el filler de ceniza por otro comercial.

X. Que se diseñó y se ha llevado a cabo un programa de seguimiento del comportamiento de los materiales por la empresa CIESM-INTEVIA que, como figura en el informe final, ha permitido comprobar que las mezclas con cenizas han tenido un comportamiento adecuado, similar a las fabricadas con filler ordinario, achacando las diferencias observadas más a la heterogeneidad propia de la fabricación y puesta en obra de pequeñas cantidades que al empleo de la ceniza.

XI. Que como paso previo y definitivo para la aprobación del uso generalizado de la ceniza como material para la fabricación de mezclas de aglomerado los técnicos del DDEyT/DFB consideran necesaria la realización de una obra piloto de mayor entidad que los dos tramos de prueba ejecutados para valorar definitivamente las ventajas e inconvenientes en una obra a escala real.

XII. Que tras el análisis de resultados se procedería a la definición de las especificaciones técnicas de la ceniza como material y para su utilización, bien para incluirlas en los pliegos de uso por el DDEyT/DFB, bien para incorporarlas como anejo de la Norma de Firmes del País Vasco, así como difundir los resultados por los cauces que se consideren adecuados.



XIII. Aurretiazko azterketan, errautsak bestela erabiltzeko aukerak aurkitu ziren, aglutinatzaile hidrauliko edo pozzolana-aglutinatzaileekin tratatutako materialentzako konglomeratu gisa. Hortaz, komenigarria izango litzateke erabilerari horri buruzko beste ikerketa-ildo bat irekitzea.

XIII. Que durante el estudio previo se detectaron otras posibilidades de utilización de las cenizas en carreteras como conglomerantes para materiales para materiales tratados con ligantes hidráulicos o puzolánicos, por lo que sería conveniente abrir otra línea de investigación sobre esta aplicación.

Aurreko azalpena ikusita, alde parte-hartzaileek honakoan arabera kolaboratuko dute eta koordinatuko dituzte euren jarduerak:

A la vista de la anterior exposición, las partes intervinientes colaborarán y coordinarán sus actuaciones de acuerdo a las siguientes:

### KLAUSULAK

### CLÁUSULAS

#### 1. Xedea

Honako xedea da lortzeko sinatu da hau:

- a) BBUPen eta BFA/ELGSSren artean lankidetzarako sistema prestatzea, gutxi gorabehera km 1eko luzera duen errepidezati pilotuan, alde aurretik probatutako nahasketa asfaltikoak betearazteko: AC motako hormigoi asfaltikoa edo BBTM A edo B motako etenak dituzten nahasketa bituminosoak. Horietan, fabrikatzeko eta lan erreala eskalan egiteko baldintzak egiaztatu ahal izango dira, bai eta zirkulazioa igarotzean egiturak duen indarra ere; izan ere, azken helburua da errautsa Bizkaiko errepideen eraikuntzan erabili daitekeen material gisa baliozkotzea.

- b) Materialaren zein erabileraren zehaztapen teknikoak definitzea, BFaren erabilerari buruzko baldintza-orri teknikoetan edo Euskal Autonomia Erkidegoko zolei buruzko araudiaren eranskinean sartzeko.

- c) Bestalde, oinarrietan eta azpi-oinarrietan errautsaren erabilerari buruzko laborategiko ikerketak gauzatzen jarraitzea.

#### 2. Lankidetzaren sistema

Lankidetzaren sistema ondorengo premisetan oinarritzen da:

- Informazio teknikoa, ekonomikoa edota bestelakoa elkarri eman eta trukatzeko,

#### 1. Objeto

El objeto que se pretende y por el que se suscribe el presente Convenio es:

- a) Instrumentar un sistema de colaboración entre el CABB y el DDEyT/DFB para ejecutar un tramo piloto de aproximadamente 1 km de longitud con una de las mezclas asfálticas ensayadas con anterioridad: hormigón asfáltico tipo AC o mezclas bituminosas de tipo discontinuo tipo BBTM A ó B, en el que poder comprobar las condiciones de fabricación y puesta en obra a escala de una obra real así como su comportamiento estructural al paso del tráfico, con el objetivo final de la validación de la ceniza como un material que se pueda emplear en la construcción de carreteras en Bizkaia.

- b) Definir las especificaciones técnicas tanto del material como del modo de empleo para su inclusión en los pliegos de prescripciones técnicas de uso por la DFB o como un Anejo de la Norma de Firmes del País Vasco.

- c) Por otra parte continuar con los estudios de laboratorio correspondientes a la utilización de la ceniza en bases y sub-bases.

#### 2. Sistemas de colaboración

El sistema de colaboración se basa en las siguientes premisas:

- Facilitar e intercambiar mutuamente cuanta información técnica, económica o de otro



proposatutako helburuetarako erabilgarria bada.

- Egokitzat jotzen diren ekintzak elkarrekin sustatzea, Aldeetako interesen alde egiteko, eta Erakunde bietako printzipioekin bat eginez.

Hitzarmen hau, eta, azken batean, Lankidetzaren, errautesarekin eginiko aglomeratua duten zati pilotuak (BFA/ELGSSk zehaztuko ditu) eraikitzeko izango da, eta, ondoren, materiala baliozkotzeko beharrezkotzat jotzen diren azterketak, probak eta analisiak egingo dira.

Lanak BFA/ELGSSko Teknologia eta Inbentario zerbitzuko buruaren zuzendaritzapean egingo dira, eta hurrengo kostuak izango ditu: 1) Proba-zatien betearazpena BFA/ELGSSko kontraturen baten parte izango da; BBUPek dagokion kontratistari hornituko dio probatuko den nahasketa asfaltikoa fabrikatzeko beharrezkoa den errautes kopurua. 2) Proba, analisi eta laborategiko entseguen kostuak, bai eta dagozkion txostenen idazketa ere, BBUPek berak ordainduko ditu. Kapitulu honetan sartuko dira zoruaren oinarrietan eta azpi-oinarrietan errautesaren erabilerari buruzko ikerketarako diseinatutako saiakera eta probei buruzko planari dagozkion lanak.

### 3. Ekintzak

Hitzarmen honen eremuan garatuko diren ekintzak honakoak dira, berau indarrean dagoen bitartean zehazten diren bestelakoei kalterik egin gabe:

- a) "ORUETA-SANTO DOMINGOko sarreren eta espaloien berrantolaketa" zatia betearaztea, BBTM A errodadura-geruzan errautesarekin fabrikatutako aglomeratuak gauzatu, obran kokatu eta egitura aztertzeko baldintzak aztertuz.
- b) Bi urtez, eta, gutxienez, bi neguz, errautsez

orden que sea considerada útil a los fines propuestos.

- Promover conjuntamente cuantas acciones se consideren convenientes para favorecer los intereses de las Partes, en coherencia con los principios inspiradores de ambas Entidades.

El desarrollo del presente Convenio y, en definitiva, de la Colaboración, se concretará en la construcción de los tramos piloto con aglomerado con ceniza que determine el DDEyT/DFB y en la consecuente realización de los estudios, pruebas y análisis que se consideran necesarios para la validación del material.

La realización de dichos trabajos se llevará a cabo bajo la dirección del Jefe de Servicio de Tecnología e Inventario del DDEyT/DFB, con el reparto de costes siguientes: 1) la ejecución de los tramos de prueba formará parte de alguno de los contratos del DDEyT/DFB; el CABB suministrará al contratista correspondiente la cantidad de ceniza necesaria para la fabricación de la mezcla asfáltica que se vaya probar. 2) el coste de las pruebas, análisis y ensayos de laboratorio, así como la redacción de los informes correspondientes será sufragado por el CABB. En este capítulo se incluirán los trabajos correspondientes al plan de ensayos y pruebas que se diseñe para el estudio del empleo de la ceniza en bases y sub-bases de firmes.

### 3. Acciones

Las acciones a desarrollar en el ámbito del presente Convenio, y sin perjuicio de cualesquiera otras que puedan ir determinándose durante la vigencia del mismo, serán las siguientes:

- a) Ejecución del tramo "Reordenación de accesos y aceras en ORUETA-SANTO DOMINGO" analizando las condiciones de elaboración, colocación en obra y comportamiento estructural de los aglomerados fabricados con ceniza en capa de rodadura-BBTM A.
- b) Seguimiento y control durante un periodo



egindako nahasketa bituminosoekin prestatutako egitura-portaera aztertzeo jarraipena eta kontrola egingo da, BFA/ELGSSren gomendioei jarraituz xede horretarako ezarritako planaren arabera.

- c) Materialaren zein erabileraren zehaztapan teknikoak definituko dira, BFAREN erabilerari buruzko baldintza-orri teknikoetan edo Euskal Autonomia Erkidegoko zolei buruzko araudiaren eranskinean sartzeko.
- d) Proiektugile eta kontratistei produktua aurkezteko jardunaldia prestatuko da, bai eta artikulua eta dokumentu teknikoak idatzi ere, materiala eta eskaintzen dituen aukerak ezagutu ahal izateko.
- e) Laborategian saiakerak eta probak egiteko programa diseinatuko da, errautsa errepideetako zoru etako oinarrietan eta azpi-oinarrietan erabiltzeko bideragarritasunaren ezagutzan aurrera egin ahal izateko.

#### 4. Jarduera plana

BFA/ELGSSri dagokio jarraitu beharreko Jarduera Plana zehaztea, zatitako lanen garapen normalarekin bateragarriak diren epeak ezarritik.

Jarduerak zehaztuta eta baliabideak prestatuta, lanen jarraipenari ekingo zaio; horretarako, bi hilari behingo bilerak egingo dira, eta dagokien Akta ere jasoko da. Batzar horietara, kontratatutako erakunde laguntzailea joan ahal izango da, edota xede horretarako deitutako edozein tekniko espezialista. Bileren arteko denbora-tarteak laburtu edo luzatu egin ahal izango dira, lan erritmoak hala eskatzen badu.

Bilera horietan, lanen aurrerapena eta baldintzak baloratuko dira, eta alde bietako bakoitzak lituzkeen datu edota gaien berri emango luke.

BFA/ELGSSri dagokio aurrerapenak ontzat ematea, ezagutza zientifikoa eskaintzea,

de dos años y al menos dos inviernos del comportamiento estructural del firme elaborado con mezclas bituminosas con ceniza según el plan que se establezca al efecto siguiendo las recomendaciones del DDEyT/DFB.

- c) Definición de las especificaciones técnicas tanto del material como del modo de empleo para su inclusión en los pliegos de prescripciones técnicas de uso por la DFB o como un Anejo de la Norma de Firmes del País Vasco.
- d) Preparación de una jornada de presentación del producto para proyectistas y contratistas así como la redacción de artículos y documentos técnicos que sirvan para el conocimiento del material y de sus posibilidades.
- e) Diseño de un programa de ensayos y pruebas de laboratorio que permita avanzar en el conocimiento de la viabilidad del empleo de la ceniza en bases y sub-bases de firmes de carreteras.

#### 4. Plan de actuación

Corresponderá al DDEyT/DFB definir el Plan de Actuación a seguir, estableciendo los plazos que sean compatibles con el normal desarrollo de las obras en las que aquéllos se integran.

Definidas las distintas actuaciones y habilitados los recursos, se procederá a la realización de las primeras y al seguimiento de los trabajos, estableciéndose un régimen de reuniones, que con carácter general será bimensual, de las que se levantará las correspondientes Actas. A dichas reuniones podrá asistir la Entidad Colaboradora contratada o cualquier técnico especialista convocado a tal fin. Se podrán acortar o alargar los periodos entre reuniones cuando el ritmo de los trabajos así lo aconseje.

En estas reuniones se valorará el avance de los trabajos y las circunstancias en las que aquéllos se desarrollan, aportando cada una de las partes cuantos datos pudieran disponer.

Corresponderá al DDEyT/DFB dar como buenos los avances realizados aportando el



azterketa kritikoa egitea, eta abar, betiere, BBUP benchmarking prozesuen bitartez posizionatuz.

Lanak amaitzean, Amaierako Memoria idatziko da.

Helburuak ezin izango direnez lortutzat jo lanak oso-osorik amaitu arte edo lanen atal bakoitza bukatu arte, isilpekoak izango dira lanen garapenak dirauen bitartean, eta, ondorioz, parte-hartzaile guztiek errespetatu beharko dute baldintza hori, laborategiko saiakerak edo antzekoak egiteko kontratatzen diren erakunde kolaboratzaile posibleek barne. Horretarako, Erakunde kontratatzaileak betebeharrak sartuko ditu dagozkion kontratuen baldintzen artean.

Lanen jabetza intelektual Hitzarmen honen sinatzaile diren Erakunde bien artean konpartituko da.

Interes publikoa dela-eta, pentsatuko balitz lanak amaitu aurretik lanen egoera ezagutaraztea egokia dela, jarraian datorren 5 puntuan ezarrita dagoen moduan, Batzordeak zehaztuko luke zein den argitara eman beharreko lanaren atala, esparrua, gauzak egiteko modurik egokiena eta horren inguruko beste edozein gai.

##### 5. Hitzarmenaren jarraipena

Hitzarmenaren garapen egokia egiaztatu ahal izateko, Jarraipen Batzorde bat eratuko da, BBUPeko eta BFA/ELGSSko ordezkari hauekin:

BBUPetik:

Aktiboen Kudeaketa eta Ustiapeneko zuzendaria

Saneamenduaren Ustiapeneko

zuzendariordea

BFA/ELGSStik:

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako zuzendari nagusia.

Teknologia eta Inbentario zerbitzuko burua.

Batzordearen Presidentetza alde bietako

conocimiento científico, el análisis crítico, etc., posicionando al CABB mediante procesos de benchmarking.

A la conclusión de los trabajos se redactará una Memoria Final.

Habida cuenta de que los objetivos no podrán considerarse alcanzados hasta la finalización de los trabajos en su conjunto o de cada una de las partes en que se subdividan, éstos se considerarán confidenciales durante su desarrollo, lo que obligará a todos los participantes, incluidos las posibles entidades colaboradoras que se contraten para la realización de tareas concretas de ensayos de Laboratorio o similares, a cuyos efectos la Entidad contratante trasladará dicha prescripción al condicionado de los Contratos relacionados.

La propiedad intelectual de los trabajos se considerará compartida entre ambas Instituciones firmantes del presente Convenio.

Si por interés público, se considerase conveniente dar a conocer el estado de los trabajos antes de su finalización, la Comisión tal y como se establece en el punto 5 siguiente, determinará la parte del trabajo a publicar, el ámbito, la forma más conveniente de hacerlo y cualquier otra cuestión relativa a este aspecto.

##### 5. Seguimiento del Convenio

Al objeto de verificar el correcto desarrollo del Convenio, se constituirá una Comisión de Seguimiento formada por representantes del CABB y del DDEyT/DFB.

Por el CABB:

El Director de Explotación y Gestión de Activos

El Subdirector de Explotación de Saneamiento

Por el DDEyT/DFB:

El Director General de Infraestructuras y Desarrollo Territorial.

El Jefe de Servicio de Tecnología e Inventario.

La Presidencia de la Comisión recaerá de manera





bakoitzari egokituko zaio txandaka, hori deitzen den bakoitzean. Dagokion aldeko ordezkariak deituko du Batzordea. Hasieran, BBUPEko ordezkaria izango da presidentea.

alternativa en cada una de las partes, cada vez que se convoque la misma. El representante de dicha parte será quien convoque la Comisión. Inicialmente corresponderá la presidencia al representante del CABB.

6. Indarraldia

Hitzarmen honek HIRU (3) urteko indarraldia izango du hasiera batean, eta, betiere, elkarren adostasunez luzatzeko har daitekeen erabakiari kalterik egin gabe.

BFA/HLGSrekin sinatutako egungo 2. faseari dagokion Hitzarmena 2016ko martxoaren 11n amaitzen denez, 3. faseari dagokion Hitzarmena aipatutako egunaren hurrengo egun baliodunean sartuko da indarrean.

6. Vigencia

El presente Convenio tendrá una vigencia inicial de TRES (3) años, sin perjuicio de que se acuerde de mutuo acuerdo su prórroga.

Como quiera que el actual Convenio Fase 2, suscrito con el DOPYT/DFB finaliza el próximo 11 de Marzo de 2016, el nuevo Convenio Fase 3 entraría en vigor el día hábil siguiente a la mencionada fecha.

Eta horrela jasota gera dadin, HITZARMEN hau sinatzen da, bi aletan, goiburuan adierazten den lekuan eta egunean.

Y para que conste y en prueba de conformidad, se firma el presente CONVENIO por duplicado ejemplar, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOKO  
PRESIDENTEA  
EL PRESIDENTE DEL  
CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA,



D. RICARDO BARKALA ZUMELZU JAUNA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO  
EKONOMI ETA LURRALDE GARAPENA SUSTATZEKO  
SAILAREN DIPUTATUA  
EL DIPUTADO DEL DEPARTAMENTO  
DE DESARROLLO ECONÓMICO Y TERRITORIAL DE  
LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA,

D. IMANOL PRADALES GIL JAUNA